# gaurko filmak

| | |
|---|---|
| **La bonne année** | ★★★ |
| Zuz.: Claude Lelouch. 115m. Fran.1973. | **08:55 C+(f)** |
| **James y el melocotón gigante** | ★★★ |
| Zuz.: Henry Selick. 76m. AEB. 1996. | **09:00 T5** |
| **Le miracle des loups** | ★★ |
| Zuz.: André Hunebelle. 105m. Fran. 1971. | **11:30 M6** |
| **Loulou graffiti** | ★ |
| Zuz: Christian Lejalé. 90m.Fran. 1991. | **13:55 TF1** |
| **Les trois mousquetaires** | ★★★ |
| Zuz: George Sidney. 125m. AEB. 1948. | **14:50 F3** |
| **Asterix galiarra** | ★★ |
| Zuz.: Goscinny/Uderzo. 80m. Fran. 1967. | **15:45 ETB1** |
| **Dos tontos muy tontos** | ★ |
| Zuz.: Peter Farrelly. 102m. AEB. 1994. | **16:00 A3** |
| **Les razmoket, le film** | ★★ |
| Zuz.: Virgien/Kovalyov. 80m. 1998. | **16:55 F3** |
| **Les 7 cités d'Atlantis** | ★ |
| Zuz.: Kevin Connor. 95m. AEB. 1978. | **17:05 M6** |
| **Allan Quatermain et la cité...** | ★ |
| Zuz.: Gary Nelson. 100m. AEB. 1986. | **17:15 TF1** |
| **La flecha negra** | ★★ |
| Zuz.: John Hough. 93m. AEB. 1984. | **18:20 ETB2** |
| **Les 12 Travaux d'Astérix** | ★★ |
| Zuz.: Goscinny/Uderzo. 85m. Fran. 1975. | **20:50 M6** |
| **Blues Brothers 2000** | ★ |
| Zuz.: John Landis. 125m. AEB. 1997. | **20:55 F3** |
| **Una chica como tú** | ★★ |
| Zuz: Nick Hurran. 122m. EB. 2000. | **22:00 La2** |
| **Gigi** | ★★★ |
| Zuz: Vincente Minnelli.120m. AEB.1958. | **22:00 Arte** |
| **Hanuman** | ★★ |
| Zuz.: Fred Fougea. 90 m. Fran/India. 1998. | **22:20 M6** |
| **Marnie, la ladrona** | ★★★ |
| Zuz: Alfred Hitchcock.125m. AEB. 1964. | **00:30 La2** |
| **Les vacances de monsieur...** | ★★★★ |
| Zuz.: Jacques Tati. 85m. Fran. 1951. | **01:15 Arte** |
| **El mayor espectáculo del...** | ★★★ |
| Zuz.: Cecil B. De Mille. 146m. AEB. 1952. | **03:00 T5** |
| **Loca academia de combate** | ★ |
| Zuz: Neil Israel. 95m. AEB. 1987. | **04:00 A3** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

Iñaki Lazkano



*Marnie, la ladrona* filmeko irudi bat.

## Ilehori kleptomanoa eta psikoanalisiaren itzala

**MARNIE, LA LADRONA** ★★★ **La2- 00:30**

Zuz.: Alfred Hitchcock. Akt.: Sean Connery Tippi Hedren, Diane Baker.

Hitchcock maisuaren porrot komertzialik handienetarikoa izan zen. Zinema kritikak ere laidoztatu eta gutxietsi egin zuen estreinatu zen sasoian. Hori gutxi balitz bezala, filmaketa kaotikoa izan zen. Tippi Hedren protagonistak Hitchcocken sexu proposamenei uko egin zienetik aurrera, bereziki. *Vertigo* zirraragarriaren egileak bere izarrarekin hitz egiteari utzi zion, filmatze lanak iraun zuen artean infernu bilakatuz haren bizitza. Coppola eta Truffaut handiek filmaren balioa aldarrikatu zutenetik, ordea, suspensearen azti britainiarraren film iradokitzaileenetarikoa bihurtu da. Mark erakargarriaren enpresan lapurreta egin du Marnie ederrak. Neska harrapatu ostean, ezkontzeko proposamena egingo dio Mark atseginak. Ezkontza bidaian, amesgaizto lazgarriak izango ditu Marniek. Apurka-apurka, haren kleptomania haurtzaroko trauma gordin baten ondorio dela ohartuko da Mark. Psikoanalisia, suspensea eta sexu erakarmen gaixotiak nahasten dituen *thriller* interesgarria da.

**JAMES Y EL MELOCOTÓN GIGANTE**
★★★ **T5 - 09:00**

Zuz.: Henry Selick. 76 m. AEB. 1996.

*The Nightmare Before Christmas* maisulana zuzendu ostean, Roald Dahl idazlearen ipuin xamur eta irudimentsu bat hartu zuen oinarri Henry Selick zinemagileak, panpinak, marrazki bizidunak eta irudi errealak uztartzen dituen perla fin honetan. Izeba krudelen atzaparretatik egingo du ihes James txikiak, muxika erraldoi baten gainean. Adiskidetasunaren apologia sentibera egiten duen abenturazko film xarmangarri bezain entretenigarria da. Hunkigarria da oso.

**LES TROIS MOUSQUETAIRES**
★★★ **F3 - 14:50**

Zuz.: George Sidney. Akt.: Gene Kelly, Lana Turner, Vincent Price, Angela Lansbury.

Alexandre Dumas idazlearen eleberririk ezagunenaren zinema egokitzapenik ederrenetarikoa da, ezbairik gabe. Gene Kelly ezin hobeto ari da bertan, D'Artagnan heroiaren rolean. Abentura, umorea eta maitasuna eztiro uztartzen dituen zeluloidezko perla atsegina da.

**DOS TONTOS MUY TONTOS**
★ **A3 - 16:00**

Zuz.: Peter Farrelly. Akt.: Jim Carrey, Jeff Daniels, Lauren Holly, Teri Garr, Karen Duffy.

*There's something about Mary* arrakastatsuaren egileen estreinako filma da. Ergel hutsak dira Lloyd eta Harry. Neska eder batekin maiteminduko da Lloyd, eta Amerika guztia zeharkatuko du hura aurkitzeko. Abentura erromantiko horretan, Harry izango du bidelagun. Farrelly anaien komedia eskatologiko jasangaitza da oso. Jim Carrey xelebrearen keinu tentel eta errepikakorrak eta Jeff Danielsen pailazokeriak atsegin dituzuenontzat soil-soilik.

**EL MAYOR ESPECTACULO DEL MUNDO**
★★★ **T5 - 02:15**

Zuz.: Cecil B. De Mille. Akt.: Charlton Heston, Betty Hutton, Cornel Wilde, Gloria Grahame.

Zaharkitu samarra geratu den arren, gustura ikusten den melodrama gazi-gozoa da. Ringling Brothers &Bailey zirkuaren zuzendaria da Brad. Holly trapezistarekin maitemindurik badago ere, iritsi berria den beste trapezista bati eskainiko dio saioko ikuskizun nagusia. Pailazo baten mozorroaren atzean ezkutatzen den morroi ilun baten rola jokatzen du James Stewartek bertan. Film onenaren Oscar saria bereganatu zuen Cecil B. DeMille mitikoaren ekoizpen txukun honek.

# irratia

| | Antxeta Irratia | Irulegiko Irratia | Euskadi Irratia | Bilbo Hiria | Herri Irratia | Bizkaia Irratia | Gure Irratia | Xorroxin Irratia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| FM | 90.5 | 91.8 | 94.4/95.2 | 96.0 | 99.8 | 102.5 | 106.6 | 107.5 | |
| | 89.2 Segura Irratia | 91.4 Euskalerria Irratia | 93.6 Arrate Irratia | 95.5 Xiberoko Boza | 97.00 Tas-tas Irratia | 101.3 France Bleu Pays Basque | 103.5 Euskadi Gaztea | 107.5 Txolarre Irratia | 107.7 Hala Bedi |
| OM | 1224 Herri Irratia | | | | | | | | |

**EUSKADI IRRATIA.** Erriberako azokara joko dute *Bide batez* saiokoek, 09:30 aldera. 10:00etan, Mertxe Aizpuruak bere zutabea irakurri ondoren, euskal futbol taldeen balorazioa egingo dute. 11:00etan, Luzia Lakarra balet dantzaria elkarrizketatuko dute. Eguerdian, biharko ajea pasatzeko belarrekin egin daitezkeen tratamenduak gomendatuko ditu Alberto Altubek.

**RADIO EUSKADI.** Omer Bertin Oke Eusko Jaurlaritzako Immigrazio zuzendaria elkarrizketatuko dute gaur goizean *Boulevard* irratsaioan, 09:30 aldera. Malagako sute batean hil berri den etorkin batez mintzatuko dira solasaldian. Bestetik, Eroski Taldeko kide Ricardo Oleagak 2002ko Kontsumitzailearen Barometroa aurkeztuko du. Eta Xabier Gutierrez sukaldariak Arzakentzat egiten duen aholkulari lanaz hitz egingo du. Iruñeko Lagun Etxearen etorkizunaz ariko da, bestalde, Jesus Barrientos hezitzailea. 17:00etan, *La jungla sonora* irratsaioan, 2002. urtean hil diren musikarien ibilbideei begiratu bat emango diete: The Who taldeko John Entwistle, The Clasheko Joe Strummer, La Pollako Fernando Murua eta abar.

## ETB-1

**06:50:** Herriko semeak - Pastorala.
**07:40:** Hasiberriak. Telesaila.
**08:00:** E-klipse@.
**08:25:** Tik tak circus.
**08:50:** Betizu. Maroons. Hartz txiki. Hirukiak II. Pantera arrosa. Doraemon, katu kosmikoa. Donkey Kong eta bere herrialdea III. Txakur aberatsak.
**13:35:** Shin Chan.
**14:00:** Gaur Egun. Albistegia.
**14:40:** Lehendakariaren mezua.
**14:50:** Betizu. Doraemon, katu kosmikoa. Vicky bikingoa.
**15:45:** Zinema. **Asterix galiarra** Zuz.: Goscinny/Uderzo. 1967.
**16:55:** Altza, porru!.
**18:00:** Iparraldearen orena.
**18:05:** Pala. Urkia-Rekalde / Insausti-Lujan. Pala. Banakako Txapelketako finala: Juan Pablo-Insausti.
**20:28:** Gaur egun. Albistegia.
**21:00:** Bertatik bertara.
**21:35:** Cirque du soleil.
**22:30:** Euskal Herria: Lau haizeetara.
**23:00:** Kaixo 2003.
**02:10:** Moulin Rouge.
**03:05:** Tropicana, izarrik argiena.
**04:05:** Kar-Kar kluba.
**05:00:** Umorethoia.
**07:05:** Bertatik bertara.
**07:40:** Osabideak.
**07:50:** Herri musika sorta.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas. Albistegia.
**07:30:** Teledario matinal. (09:30) Los desayunos de TVE.
**10:30:** Especial Nochebuena Raphael 2002.
**13:15:** Por la mañana. Magazina.
**14:00:** Informativo Territorial. Albistegia.
**14:30:** Corazón de navidad. Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa.
**15:00:** Telediario 1 Albistegia.
**15:55:** Eguraldia.
**16:05:** Geminis. Telesaila.
**16:55:** Secreto de amor. Telesaila
**17:50:** Cerca de ti. Oscar Martinezek aurkeztutako magazin saioa.
**18:50:** El rival mas debil. Lehiaketa
**20:00:** Gente. Pepa Buenok eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
**21:00:** Telediario 2. Albistegia.
**21:25:** Eguraldia.
**21:30:** Al 2003... si hay que ir se va. Cruz y Raya taldearen eskutik.
**22:35:** Con la primera al 2003. Ramon Garciak, Mabel Lozanok, Juan y Mediok eta Mª Jose Suarezek aukeztutako saioa.
**23:50:** Campanadas.
**00:05:** Con la primera al 2003

## ETB-2

**07:25:** Del pais de los vascos.
**08:00:** Clasicos en serie. La casa de la pradera. Los angeles de Charlie.
**09:35:** Forum. Gonbidatua: Isabel Garces.
**10:05:** La ley de la bahia. Telesaila.
**11:45:** Pacific blue.
**13:30:** Euskadi directo. Navarra directo.
**14:00:** Date el bote. Lehiaketa.
**14:58:** Teleberri. Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba. Magazina.
**18:20:** Zinema. **La flecha negra** Zuz.: John Hough. Akt.: Benedict Taylor, Georgia Slowe, Oliver Reed. 1985.
**20:00:** Esta es mi gente. Magazina.
**20:58:** Teleberri. Albistegia.
**21:40:** Mensaje del Lehendakari.
**21:50:** Euskal Herria: la mirada mágica.
**22:10:** Mister Bean hagala usted mismo Mr Bean.
**22:46:** Kaixo 2003. Jorge Fernandezek eta Lorena Bernalek aurkeztua.
**02:05:** Kiko.
**02:25:** La historia de Mister Bean.
**03:30:** La vibora negra viaja en el tiempo.
**04:05:** Lee Evans ¿y ahora que?
**05:05:** Lido Paris.
**05:50:** Desternillante.

## A3

**06:30:** Canal Noticias.
**07:30:** Club megatrix. Power Rangers. Bad. los terribles gemelos Cramp. Beyblade. En busca del valle encantado V. Titeuf.
**12:00:** El equipo A.
**13:00:** Sabrina.
**13:25:** Informativos territoriales. Albistegia.
**13:30:** Nada es para siempre.
**14:00:** Los Simpson. Marrazki bizidunak.
**15:00:** Noticias 1. Albistegia.
**16:00:** Zinema. **Dos tontos muy tontos** Zuz.: Peter Farrely. Akt.: Jim carrey, Jeff Daniels. 1994.
**18:15:** Ahora.
**19:00:** El diario de Patricia.
**20:00:** Pasapalabra.
**21:00:** Noticias 2. Albistegia
**22:00:** La batidora. Lo mejor del año.
**23:45:** Especial Campanadas Fin de Año.
**00:05:** 003. Licencia para bailar.
**04:00:** Zinema. **Loca academia de combate** Zuz.: Neil Israel. Akt.: Keith Gordon, Wally Ward. 1987.